



*Curriculuma*

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

## ARLOA: INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK



## LEHEN HEZKUNTZA



## SARRERA

Europar Batasunak behin baino gehiagotan erakutsi du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerarekiko sentsibiltatea, hezkuntzaren zerbitzura dagoen baliabide gisa.

LOE legearen arabera, IKTak lagungarriak dira Lehen Hezkuntzan **hurrengan hainbat gaitasun piztu eta horiek erabiltzen hasten laguntzen dietelako, jasotzen eta sortzen dituzten mezuen aurrean espirtu kritikoa garatuz**. Egunero guztiok egiten ditugun ekintzetan (asia, merkataritza, kultura, osasuna, lana edo hezkuntza) gero eta sarriago agertzen diren tresna horiek duten garrantzia aitortzen du.

Internet, on-line bankuak, posta elektronikoa, sakelako telefonoak, prentsa digitala, sareko erosketak eta on-line hezkuntza, eta abar ikaragarri garatu dira azken urteotan. Gainera, oinarrizko tresna bilakatzen ari dira edozeinen bizitza pertsonalean zein profesionalean. Ondorioz, eskolakoekiko paraLOEak diren ikaskuntzak gertatzen dira. Arautu gabeko ikastaldi informalak dira, baina ikastetxeko curriculumean errekonozitu eta integratu behar direnak. Horrela, ikasleak hainbeste aldatzen den gizarte honetara egokitzea da helburu nagusia, eta, era berean, informazio honen guztiaren aurrean jarrera kritikoa eta arduratsua izatea.

Hori dela eta, IKTak eskolako curriculumean sartzea beharrezkoa da. Hezkuntza-administrazioek edota irakasleek ezin dituzte teknologia horiek albo batera utzi, are gehiago, ikasleek, etapa amaitutakoan, egungo gizartean mugitzeko oinarrizko gaitasunak menderatzeko eskubidea daukatela jakinda.

*Argi geratu behar du teknologia horiek ez dutela berez ezagutza-helburu jakin bat osatzen; aitzitik, pertsonaren prestakuntzan funtsezkoak diren hainbat gaitasun garatzeko tresna erabilgarriak dira, batez ere pertsonak ikasten ikas dezaten.*

Ezin da ahaztu eskolak, teknologia berrien erabilerari dagokionean, daukan funtzio osagarria; izan ere, ikasle guztiek ez daukate etxeetan behar beste azpiegitura. Litekeena da eskola izatea ezagutzaren gizartetik baztertuak ez izateko gaitasun zein trebetasun teknologikoak eskuratzeko leku bakarra.

Hezkuntza-sistemak beharrezko neurriak hartu behar ditu, zulo digitala saihesteko ez ikasleen artean soilik, baita irakasleen artean ere. Helburu hori kontuan izan behar da curriculum hau idazterakoan eta ulertzerakoan.



## ARLOKO GAITASUNAK

Lehen Hezkuntzako helburuetako batean, LOEk IKTek etapa honetan dituzten zentzua eta helburua zehazten dira: **“informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasten eta erabiltzen hastea, ikasleek jasotzen eta sortzen dituzten mezuen aurrean espiritu kritikoa garatuz”**. Fokua, beraz, ikastaldietan jartzen dute, IKTak ikastaldien zerbitzura dagoen erreminta gisa ulertuta.

LOEren printzipio pedagogikoen artean honakoak nabarmentzen dira: **“Etapako zenbait arlotan berariaz erabiliko liratekeela ahaztu gabe, (...) informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (...) arlo guztietan landuko dira”**. Arlo kategoria ez zaie jartzen, baizik eta IKTek eragindako arlo guztiak aitortzen dira.

IKTek etapan kontsiderazio bikoitza merezi dutela da curriculum honetako ideia nagusia: lehenengoa, gorago aipatu bezala, IKTak ikastaldiaren zerbitzura dauden erreminta pribilegiatuak direla da, zentzurik zabalenean. Hori dela eta, irakasleen eta ikasleen zerbitzura daude. Bigarrenak dio erreminta horien aprobetxamendu egokiak erabiltzeko planteamendu egokiak behar dituela, ikasleek ahalik eta etekinik handiena ateratzeko beharrezko gaitasunak garatzen dituztela ziurtatuta. Hori dela eta, curriculumean gaitasun horiek kontuan izan behar dira.

Arlo gisa kontsideratuak ez daudenez, ordea, ez du ematen arrazoizkoa denik lan-edukiak zehaztea; izan ere, IKTak ikaskuntza gisa eraiki beharko lirateke. Horrek euren baldintza ahulduko luke eta antolakuntza mailako arazo ugari sortuko lituzke. Hori dela eta, ikasleek etaparen amaieran izan beharreko gaitasunak eta etapan zehar plangintzak gidatuko dituzten ebaluazio irizpideak baino ez dira identifikatzen.

IKT izendapenak hainbat gailuri egiten dio erreferentzia. Aurrerapen teknologiko azkarra dela eta, ez da gehiegi zehazten, baina beharrezkoa da orientazio gisa erabiliko den erreferentziaren bat ezartzea. Gaur egun, ordenagailuak leku pribilegiatua dauka; postu bakarrekoak eta zentro bateko sarearen bezero izaten dira. Katalogoa, ordea, ohiko erabilerako teknologia gisa kontsideratzen dena hedatu behar da; hots, sakelako telefonoetara, agenda elektronikoetara, GPSra, etorkizunean ager daitezken komunikazio interaktiboko sistemetara... Ezin dira ahaztu irratia eta telebista bezalako bitarteko hain eraginkorrak ere.

IKT hitza kontuan izanda, gaitasunen sailkapen simple bat egin dute:

- **Teknologia**: ikasteko beharrezkoak diren aparatuen eta aplikazioen erabilerari zuzenean lotutako gaitasun guztiak biltzen ditu.
- **Informazioa**: informazioaren tratamenduari lotutako gaitasunak biltzen ditu; izan ere, ikasteko IKTen erabilerarik oinarritzkoena da.
- **Komunikazioa**: IKTen komunikatzeko aukeren hezkuntza-aprobetxamenduari lotutako gaitasunak biltzen ditu.

Aipatutako gaitasun guztiak oinarritzkoak dira. Oinarritzko alderdien eta alderdi propedeutikoen arteko desberdintasuna, ordea, ebaluazio irizpideetan garatzen direnetan begi-bistakoak diren jarreretan egin beharko da.



Gaitasun horiek aseguratzeko arloen ekarpena, batetik, lan-metodologia jarraituek baldintzatuko dute; eta, bestetik, une bakoitzean planteatutako IKT baliabide egokien aukeraketak eta priorizazioak.

Litekeena da zehaztutako alderdi partzialen bat lortzeak arazoak ekartzea ikastetxeen azpiegituraren konfigurazioarekin (adibidez, programak instalatzeak). Horiek lortzeko modu alternatiboak bilatu beharko dira, edota gaitasunaren alderdi hori oinarritzko gisa ez da kontsideratu beharko.

## ARLOKO GAITASUNAK

### TEKNOLOGIA

1. Teknologia erabiltzen ohitzeko, eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea.
2. Eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea, iraunkortasunean interesatuta eta erabaki autonomoak hartzerakoan aurrerapausoak emanda. Helburua teknologia modu arduratsuan eta egokian erabiltzen ohitzea da.
3. Erreminta informatiko horien aukera propioak erabiltzerakoan trebetasuna izateko, ikasgelako jardueretan programak zein aplikazioak erabiltzea.
4. Teklatua erabiltzen ohitzea gutxieneko abiadura eta zehaztasuna lortzeko. Hala, ikasgeletan teklatuaren aprobetxamendua ziurtatuko da.
5. Ergonomiako eta segurtasuneko oinarrizko elementuak identifikatzea eta baloratzea, ordenagailua erabiltzerakoan oinarrizko ohitura osasuntsuak hartzeko.
6. Hainbat material interaktibo modu autonomoan erabiltzen saiatzea, berariazko gaitasunak lortu ahal izateko.
7. Teknologiaren eta aurrerapenen berezitasunak identifikatzea eta horiekiko interesa agertzea, horien erabileran jarrera irekia, arduratsua eta kritikoa erakutsita, ikastaldiari egiten dizkion ekarpenak baloratzeko.

## **INFORMAZIOA**

8. Inguru hipertestualak eta ikus-entzunezko materialak jarrera kritikoarekin esploratzea eta analizatzea, IKTen hizkuntza propioak interpretatzeko eta ulertzeko.
9. Hainbat helbururekin informazioa lortzea, aukeratzea, antolatzea eta gordetzea (testua, irudia, soinua, bideoa...), prozesu hauetan ohitura hartzeko eta eraginkortasuna lortzeko.
10. Prozesu hauetan ohitura hartzeko eta eraginkortasuna lortzeko, formatu desberdinetan dagoen informazioa elaboratzea, informazio hori berdinei, familiei edota beste estamentu batzuei komunikatzeko.

## **KOMUNIKAZIOA**

11. Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak, txata...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, bitarteko horiek behar bezala eta modu eraginkorrean erabiltzeko.
12. Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak, txata...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, komunikazio elektronikoan erabilera kritikoa eta segurua garatzeko.
13. Proiektu "kolaboratzaileak" gauzatzera, taldean lan egiteko erremintak erabiltzea, taldean ikastearen garrantzia deskubritzeko eta baloratzeko.



## ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Abiatzeko egoerak eta ikasleak ikastetxetik kanpora IKTetara gerturatzeko aukerak anitzak dira, eta Derrigorrezko Hezkuntzari dagokio zulo digitala saihesteko beharrezko neurriak hartzea. Ezarritako gaitasunen helburua lan honetan erreferentzia gisa erabili ahal izatea da.

Bestalde, IKTetara sartzeko aukeren hazkunde azkarra hezkuntzarentzat erronka handia da: sistematizatzeko lanaz arduratzea, beharrezko erabilera-ohiturak osatzea eta zuzentzea.

Eskumenen ebaluazioaren helburu nagusia hezkuntza-ekintza bideratzea da, etaparen bukaeran ikasleek IKTak ikasteko ohiko tresna gisa erabil ditzaten.

Hori dela eta, beharrezkoa izango da IKTak irakaskuntza/ikaskuntza prozesuetan sartzea curriculumaren alor guztietan, ikasleek irizpideen bidez ebaluatzen diren gaitasunak lortzeko.

Era berean, ebaluazioak zentzua dauka laneko ohiko testuinguruetan; hots, arlo guztietako ikaskuntza-jardueretan. Oro har, zentzurik ez dauka ebaluazioko jarduera berezien diseinuak.

Proposatutako irizpideak ikus daitezkeen jarreretan zehazten dira. Proposatutako gaitasun guztiak oinarritzekoak direnez, identifikatzea komeni da ikus daitezkeen jokaeretatik zeintzuk diren oinarritzekoak eta zeintzuk propedeutikoak.

Litekeena da zehaztutako begi-bistako jarreraren bat ikastetxeetako azpiegituren konfigurazioarekin bat ez etortzea. Horiek lortzeko edota oinarritzeko gisa kontsideratzeko, modu alternatiboak bilatu beharko dira.



GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<b>TEKNOLOGIA</b>	
<p>Teknologia erabiltzen ohitzeko, eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko terminologia ulertzen eta erabiltzen du.</li> <li>• Oinarrizko elementu fisikoak eta horien funtzioak kokatzen eta identifikatzen ditu.</li> <li>• Ordenagailua erabiltzeko ohiko errutina batzuei jarraitzen die: piztu, itzali eta programak ireki eta itxi; antolatu eta partekatu, inprimatu, gorde eta artxiboak berreskuratu edo ezabatu.</li> </ul>
<p>Eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea, iraunkortasunean interesatuta eta erabaki autonomoak hartzerakoan aurrerapausoak emanda. Helburua teknologia modu arduratsuan eta egokian erabiltzen ohitzea da.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gailuak egoera onean mantentzen laguntzen duenean</li> <li>• Energia, papera, kontsumitzen direnak... aurreztatzeke konpromisoa hartzen duenean</li> <li>• Segurtasun arrisku ohikoenez jabetua dagoenean eta jokaera kontsekuenteak onartzeko beharra sortutakoan: birusak, arrotzak, informazio-galtzeak...</li> <li>• Irakasleari laguntza eskatzen dio programak edo osagarriak instalatzeko arazoak dituenean, mezu ezezagunak agertzen zaizkionean, eguneratzeak egin behar dituenean.</li> <li>• Autonomia lortzen ari da ohiko arazo teknikoaren aurrean: blokeoak, askatutako kableak, ohikoak</li> </ul>

	ez diren mezuak.
Erreminta informatiko horien aukera propioak erabiltzerakoan trebetasuna izateko, ikasgelako jardueretan programak zein aplikazioak erabiltzea.	Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erraztasunez erabiltzen du programen ingurunea (menuak, ikonoak, tresna-barrak, testuinguruko menua, teklen arteko konbinazioak, berariazko laguntza) eskolako ariketak egiteko orduan.</li> <li>• Interesa agertzen du ohiko programak eskaintzen dituzten beste baliabide batzuk ezagutzeko eta aplikatzeko.</li> </ul>
Teklatua erabiltzen ohitzea gutxieneko abiadura eta zehaztasuna lortzeko. Hala, ikasgeletan teklatuaren aprobetxamendua ziurtatuko da.	Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zehaztasunez tekleatzen du eta minutuko 80 pultsazioko abiadurara iristen da, gutxienez.</li> </ul>
Ergonomiako eta segurtasuneko oinarrizko elementuak identifikatzea eta baloratzea, ordenagailua erabiltzerakoan oinarrizko ohitura osasuntsuak hartzeko.	<i>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pantailekiko, esposizio denborekiko... posturak, distantziak eta posizioak zaintzen dituenean</li> </ul>
Hainbat material interaktibo modu autonomoan erabiltzen saiatzea, berariazko gaitasunak lortu ahal izateko.	Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arlo desberdinen inguruko alderdi zehatzei buruzko material interaktiboak erabiltzen ditu.</li> <li>• Erraztasunez mugitzen da autoikaskuntzarako erabiltzen diren web-inguruneetan.</li> <li>• Materialekin eta inguruekin egoki lan egiten duenean</li> <li>• Ikasgelan ezarritako plan zehatzen arabera autoerregulatzen denean</li> </ul>
Teknologiaren eta aurrerapenen berezitasunak identifikatzea eta	Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak

<p>horiekiko interesa agertzea, horien erabileran jarrera irekia, arduratsua eta kritikoa erakutsita, ikastaldiari egiten dizkion ekarpenak baloratzeko.</p>	<p>egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kritikoki eta aktiboki onartzen ditu teknologia berriak, eta bere eguneroko lanak egiteko erabiltzen ditu.</li> <li>• Teknogiekin duten adikzio-botereaz ohartzen da eta kontrolatu egiten du tresna horiekin igarotzen duen denbora.</li> </ul>
<p><b>INFORMAZIOA</b></p>	
<p>Inguru hipertestualak eta ikus-entzunezko materialak jarrera kritikoarekin esploratzea eta analizatzea, IKTen hizkuntza propioak interpretatzeko eta ulertzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inguru hipertestualetan mugitzen denean, estekak, irudiak... egoki erabilia</li> <li>• Genero bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen ditu (publizitatea, albistegiak, dokumentalak...), hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren elementuak interpretatuz.</li> <li>• Jarrera kritikoa agertzen du ikus-entzunezko baliabideek emandako mezuekiko.</li> </ul>
<p>Hainbat helbururekin informazioa lortzea, aukeratzea, antolatzea eta gordetzea (testua, irudia, soinua, bideoa...), prozesu hauetan ohitura hartzeko eta eraginkortasuna lortzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa tratatzeko jardueretan planifikatzen, lan egiten, berrikusten eta parte hartzen duenean.</li> <li>• Interneteko nabigatzaileak erabiltzen ditu nabigatzeko eta informazioa biltzeko, berreskuratzeko, sailkatzeko edo inprimatzeko.</li> <li>• Bilagailuak erabiltzen ditu berariazko informazioa aurkitzeko.</li> <li>• Datu-base errazetan begiratzen du.</li> <li>• Sarean informazioa antolatzen eta partekatzen</li> </ul>

	<p>duenean</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistematikoki aipatzen ditu erabilitako informazio-iturriak.</li> <li>• Inguruko informazio ugariarekiko eta horren kalitatearekiko jarrera kritikoa izatearen beharraz ohartzen da.</li> </ul>
<p>Prozesu hauetan ohitura hartzeko eta eraginkortasuna lortzeko, formatu desberdinetan dagoen informazioa elaboratzea, informazio hori berdinei, familiei edota beste estamentu batzuei komunikatzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lortu nahi den helburuarentzat egokienak diren programa informatikoak erabiltzen dituenean.</li> <li>• Testuak osatu, editatu eta berrikusten ditu prozesadore baten bidez.</li> <li>• Testuak, irudiak, audioak eta bideoak sortzen eta aldatzen ditu.</li> <li>• Grafikoak, testuak eta ikus-entzunezko baliabideak nahasten dituen dokumentuak sortzen ditu.</li> <li>• Kontuan hartzen du estetikak komunikazioan duen garrantzia, lanak egituratzeko orduan testuen, irudien, doinuen, bideoen eta abarren arteko orekari eutsiz.</li> <li>• Pertsonen eta erakundeen ohorea errespetatzen du, eremu pribatuetan sartu gabe eta benetako informazioa eskainiz.</li> <li>• Komunikazio eraginkorra izan ote den edota aldaketak sartu behar ote diren baloratzen duenean.</li> </ul>
<b>KOMUNIKAZIOA</b>	
<p>Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak, txata...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p>

<p>jardueren testuinguruan, bitarteko horiek behar bezala eta modu eraginkorrean erabiltzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tresna egokia erabiltzen du, kasuan kasuko komunikazio-asmoaren arabera.</li> <li>• Komunikabide elektronikoaren oinarriko funtzioak erabiltzen ditu: mezuak bidali eta jaso, helbidetegiak antolatu eta artxiboak erantsi.</li> <li>• Mezuen eraginkortasunaren, hizkuntzaren zuzentasunaren eta erabilitako bitartekoaren bezeritasunaren arteko harremana kontuan hartzen duenean.</li> <li>• Sare bidezko komunikazioan kortesia eta zuzentasun arauak errespetatzen dituenean.</li> </ul>
<p>Komunikazio-bide elektronikoaren bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak, txata...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, komunikazio elektronikoan erabilera kritikoa eta segurua garatzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontuan hartzen du komunikazio elektronikoaren kostuaren eta behararen arteko lotura.</li> <li>• Egoera zailetan segurtasunarekin erreakzionatzen duenean: erantsitako artxibo susmagarriak, ezusteko mezuak edo mezu ezezagunak baztertzen ditu eta ezezagunei ez die informazio garrantzitsurik ematen.</li> </ul>
<p>Proiektu "kolaboratzaileak" gauzatzerakoan, taldean lan egiteko erremintak erabiltzea, taldean ikastearen garrantzia deskubritzeko eta baloratzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hainbat tresna erabiltzen ditu: posta elektronikoa, foroak, "lankidetzarako inguruneak", bideokonferentziak.</li> <li>• Emandako errolak onartzen eta betetzen ditu eta "lankidetzako proiektuetan" parte hartzen du.</li> <li>• Talde-lanerako tresnak beste ikasleekin,</li> </ul>

	irakasleekin edo kulturekin harreman sendoagoak sortzeko bitarteko ezin hobetzat hartzen ditu.
--	--



## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



## SARRERA

Europar Batasunak behin baino gehiagotan erakutsi du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerarekiko sentsibiltatea, hezkuntzaren zerbitzura dagoen baliabide gisa.

LOE legearen arabera honako hauek dira IKTen funtzioak Bigarren Hezkuntzan: “Informazio-iturriak erabiltzeko trebetasunak garatzea, zentzu kritikoz ezagutza gehiago lortu ahal izateko. Oinarrizko prestakuntza lortzea teknologien arloan, bereziki informazioaren eta komunikazioaren arloan”.

Internet, on-line bankuak, posta elektronikoa, sakeleko telefonoak, prentsa digitala, sareko erosketak eta on-line hezkuntza, eta abar ikaragarri garatu dira azken urteotan. Gainera, oinarrizko tresna bilakatzen ari dira edozeinen bizitza pertsonalean zein profesionalean. Ondorioz, eskolakoekiko paraleloak diren ikaskuntzak gertatzen dira. Arautu gabeko ikastaldi informalak dira, baina ikastetxeko curriculumean errekonozitu eta integratu behar direnak. Horrela, ikasleak hainbeste aldatzen den gizarte honetara egokitzea da helburu nagusia, eta, era berean, informazio honen guztiaren aurrean jarrera kritikoa eta arduratsua izatea.

Hori dela eta, IKTak eskolako curriculumean sartzea beharrezkoa da. Hezkuntza-administrazioek edota irakasleek ezin dituzte teknologia horiek albo batera utzi, are gehiago, ikasleek, etapa amaitutakoan, egungo gizartean mugitzeko oinarrizko gaitasunak menderatzeko eskubidea daukatela jakinda.

Argi geratu behar du teknologia horiek ez dutela berez ezagutza-helburu jakin bat osatzen; aitzitik, pertsonaren prestakuntzan funtsezkoak diren hainbat gaitasun garatzeko tresna erabilgarriak dira, batez ere pertsonak ikasten ikas dezaten.

Ezin da ahaztu eskolak, teknologia berrien erabilerari dagokionean, daukan funtzio osagarria; izan ere, ikasle guztiek ez daukate etxeetan behar beste azpiegitura. Litekeena da eskola izatea ezagutzaren gizartetik baztertuak ez izateko gaitasun zein trebetasun teknologikoak eskuratzeko leku bakarra.

Hezkuntza-sistemak beharrezko neurriak hartu behar ditu, zulo digitala saihesteko ez ikasleen artean soilik, baita irakasleen artean ere. Helburu hori kontuan izan behar da curriculum hau idazterakoan eta ulertzerakoan.





## ARLOKO GAITASUNAK

Lehen Hezkuntzako helburuetako batean, LOEk IKTek etapa honetan dituzten zentzua eta helburua zehazten ditu: “informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasten eta erabiltzen hastea, ikasleek jasotzen eta sortzen dituzten mezuen aurrean espiritu kritikoa garatuz”. Fokua, beraz, ikastaldietan jartzen dute, IKTak ikastaldien zerbitzura dagoen erreminta gisa ulertuta.

LOEren printzipio pedagogikoen artean honakoak nabarmentzen dira: “Etapako zenbait arlotan berariaz erabiliko liratekeela ahaztu gabe, (...) informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (...) arlo guztietan landuko dira”. Arlo kategoria ez zaie jartzen, baizik eta IKTek eragindakako arlo guztiak aitortzen dira.

IKTek etapan kontsiderazio bikoitza merezi dutela da curriculum honetako ideia nagusia: lehenengoa, gorago aipatu bezala, IKTak ikastaldiaren zerbitzura dauden erreminta pribilegiatuak direla da, zentzurik zabalenean. Hori dela eta, irakasleen eta ikasleen zerbitzura daude. Bigarrenak dio erreminta horien aprobetxamendu egokiak erabiltzeko planteamendu egokiak behar dituela, ikasleek ahalik eta etekinik handiena ateratzeko beharrezko gaitasunak garatzen dituztela ziurtatuta. Hori dela eta, curriculumean gaitasun horiek kontuan izan behar dira.

Arlo gisa kontsideratuak ez daudenez, ordea, ez du ematen arrazoizkoa denik lan-edukiak zehaztea; izan ere, IKTak ikaskuntza gisa eraiki beharko lirateke. Horrek euren baldintza ahulduko luke eta antolakuntza mailako arazo ugari sortuko lituzke. Hori dela eta, ikasleek etaparen amaieran izan beharreko gaitasunak eta etapan zehar plangintzak gidatuko dituzten ebaluazio irizpideak baino ez dira identifikatzen.

IKT izendapenak hainbat gailuri egiten dio erreferentzia. Aurrerapen teknologiko azkarra dela eta, ez da gehiegi zehazten, baina beharrezkoa da orientazio gisa erabiliko den erreferentziaren bat ezartzea. Gaur egun, ordenagailuak leku pribilegiatua dauka; postu bakarrekoak eta zentro bateko sarearen bezero izaten dira. Katalogoa, ordea, ohiko erabilerako teknologia gisa kontsideratzen dena hedatu behar da; hots, sakelako telefonoetara, agenda elektronikoetara, GPSra, etorkizunean ager daitezken komunikazio interaktiboko sistemetara... Ezin dira ahaztu irratia eta telebista bezalako bitarteko hain eraginkorrak ere.

IKT hitza kontuan izanda, gaitasunen sailkapen simple bat egin dute:

- **Teknologia**: ikasteko beharrezkoak diren aparatuen eta aplikazioen erabilerari zuzenean lotutako gaitasun guztiak biltzen ditu.
- **Informazioa**: informazioaren tratamenduari lotutako gaitasunak biltzen ditu; izan ere, ikasteko IKTen erabilerarik oinarritzkoena da.
- **Komunikazioa**: IKTen komunikatzeko aukeren hezkuntza-aprobetxamenduari lotutako gaitasunak biltzen ditu.

Aipatutako gaitasun guztiak oinarritzkoak dira. Oinarritzko alderdien eta alderdi propedeutikoen arteko desberdintasuna, ordea, ebaluazio irizpideetan garatzen direnetan begi-bistakoak diren jarreretan egin beharko da.



Gaitasun horiek aseguratzeko arloen ekarpena, batetik, lan-metodologia jarraituek baldintzatuko dute; eta, bestetik, une bakoitzean planteatutako IKT baliabide egokiaren aukeraketak eta priorizazioak.

Horrez gain, curriculumean teknologia-arloaren presentzia ere kontuan hartzekoa da; izan ere, arlo horrek oso garrantzi handia du IKTekin lotutako gaitasunak lortzeko orduan. Behar-beharrezkoa da ikastetxe bakoitzean koordinazio egokia lortzea, ikasleek gaitasun guztiak lor ditzaten.

Litekeena da zehaztutako alderdi partzialen bat lortzeak arazoak ekartzea ikastetxeen azpiegituraren konfigurazioarekin (adibidez, programak instalatzeak). Horiek lortzeko modu alternatiboak bilatu beharko dira, edota gaitasunaren alderdi hori oinarrizko gisa ez da kontsideratu beharko.

## ARLOKO GAITASUNAK

### TEKNOLOGIA

1. Teknologia bakarrik erabiltzeko gai izateko, eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea.
2. Eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea, iraunkortasunean interesatuta eta erabakiak hartzerakoan segurtasuna erakutsita. Helburua teknologia modu arduratsuan eta egokian erabiltzera ohitzea da.
3. Erreminta informatikoen aukera propioak menderatzeko, ikasgelako jardueretan programak eta aplikazioak erabiltzea.
4. Teklatuaren bidez, eskolako jardueren testuinguruan, informazioa sartzeko arintasuna eta zehaztasuna hobetzeko.
5. Ergonomiako eta segurtasuneko oinarrizko elementuak identifikatzea eta baloratzea, ordenagailua erabiltzerakoan ohitura osasungarriak hartzeko.
6. Hainbat material interaktibo modu autonomoan erabiltzeko prestatzea, berriazko ikaskuntzak lortzeko eta ikasketa autonomoari duen balioa emateko.
7. Teleprestakuntzako inguruetan mugitzea ikastaroetan eta beste ekintza batzuetan parte hartzera ohitzeko.
8. Teknologien eta horien aurrerapenen berezitasunak hautematea eta aztertzea, horien erabilerarekiko jarrera irekia, arduratsua eta kritikoa agertuz, norberak duen ikasteko gaitasunean erabili ahal izateko.
9. Interneten batera egin beharreko lanaren aplikazioak erabiltzen jakitea, gizabanakoen eta taldeen presentzia birtual hazkorra kontuan izanda, sarearen presentzia bera modu egokian kudeatzeko.

### **INFORMAZIOA**

10. Inguru hipertestualak eta ikus-entzunezko materialak jarrera kritikoarekin esploratzea eta analizatzea, IKTen hizkuntza propioak interpretatzeko eta ulertzeko.
11. Hainbat helbururekin informazioa lortzea, aukeratzea, antolatzea eta gordetzea (testua, irudia, soinua, bideoa...), prozesu hauetan autonomia eta eraginkortasuna lortzeko.
12. Prozesu hauetan autonomia eta eraginkortasuna lortzeko, formatu desberdinetan dagoen informazioa elaboratzea, informazio hori berdinei, familiei edota beste estamendu batzuei komunikatzeko.

### **KOMUNIKAZIOA**

13. Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, bitarteko horiek behar bezala eta modu eraginkorren erabiltzeko.
14. Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, komunikazio elektronikoan erabilera kritikoa eta segurua garatzeko.
15. Proiektu "kolaboratzaileak" gauzatzerakoan, taldean lan egiteko erremintak erabiltzea, taldean ikastearen garrantzia deskubritzeko eta baloratzeko.



## ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Abiatzeko egoerak eta ikasleak ikastetxetik kanpora IKTetara gerturatzeko aukerak anitzak dira, eta Derrigorrezko Hezkuntzari dagokio zulo digitala saihesteko beharrezko neurriak hartzea. Ezarritako gaitasunen helburua lan honetan erreferentzia gisa erabili ahal izatea da.

Bestalde, IKTetara sartzeko aukeren hazkunde azkarra hezkuntzarentzat erronka handia da: sistematizatzeko lanaz arduratzea, beharrezko erabilera-ohiturak osatzea eta zuzentzea.

Eskumenen ebaluazioaren helburu nagusia hezkuntza-ekintza bideratzea da, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran ikasleek IKTak ikasteko ohiko tresna gisa erabil ditzaten.

Hori dela eta, beharrezkoa izango da IKTak irakaskuntza/ikaskuntza prozesuetan sartzea curriculumaren alor guztietan, ikasleek irizpideen bidez ebaluatzen diren gaitasunak lortzeko.

Era berean, ebaluazioak zentzua dauka laneko ohiko testuinguruetan; hots, arlo guztietako ikaskuntza-jardueretan. Oro har, zentzurik ez dauka ebaluazioko jarduera berezien diseinuak.

Proposatutako irizpideak ikus daitezkeen jarreretan zehazten dira. Proposatutako gaitasun guztiak oinarritzkoak direnez, identifikatzea komeni da ikus daitezkeen jokaeretatik zeintzuk diren oinarritzkoak eta zeintzuk propedeutikoak.

Litekeena da zehaztutako begi-bistako jarreraren bat ikastetxeetako azpiegituren konfigurazioarekin bat ez etortzea. Horiek lortzeko edota oinarritzko gisa kontsideratzeko, modu alternatiboak bilatu beharko dira.

GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<b>TEKNOLOGIA</b>	
<p>Teknologia bakarrik erabiltzeko gai izateko, eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohiko terminologia ulertzen eta erabiltzen du, bereziki abiadura, memoria eta gaitasuna bezalako magnitudeekin lotutakoa.</li> <li>• Elementu fisikoak, periferikoak, eta horien funtzioak identifikatzen ditu.</li> <li>• Erraz moldatzen da zentroko sare-eremuan, ohiko errutinak erabiliz: esaterako, artxiboak ordenan eta segurtasunez gordetzea eta ezabatzea, lanen segurtasun kopiak sistematikoki egitea, tekla-konbinazio ohikoenak erabiltzea ohiko eragiketak egiteko.</li> </ul>
<p>Eskolako jarduerak exekutatzekoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea, iraunkortasunean interesatuta eta erabakiak hartzerakoan segurtasuna erakutsita. Helburua teknologia modu arduratsuan eta egokian erabiltzera ohitzea da.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gailuak egoera onean mantentzen laguntzen duenean</li> <li>• Energia, papera, kontsumitzen direnak... aurreztatzeke konpromisoa hartzen duenean</li> <li>• Segurtasun arrisku ohikoenez jabetua dagoenean eta jokaera kontsekuenteak onartzeko beharra sortutakoan: birusen kontrako babesleak, arrotzen hautemaleak, suebakiak...</li> <li>• Autonomiaz jarduten du ohikoak ez diren</li> </ul>

	<p>mezuen aurrean eta eguneroko arazo teknikoaren aurrean (blokeoak, askatutako kableak, periferikoak).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Programak instalatzeko eta desinstalatzeko gaitasuna, beharrezko neurriak hartuta.</li> </ul>
<p>Erreminta informatikoen aukera propioak menderatzeko, ikasgelako jardueretan programak eta aplikazioak erabiltzea.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzten:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Behar bezala erabiltzen dituzten sistema eragilearen erabilgarritasunak.</li> <li>• Erabilgarritasun-programa desberdinak behar bezala erabiltzen dituzte: artxiboen ulermena, dokumentuak bistaratzeko programak (grafikoak, testuak), audio- eta bideo-irakurgailuak.</li> <li>• Programa bakoitzak eskaintzen duen laguntza erabiltzen du, baita beste tutorial eta eskuliburu batzuk ere aurreratutako aukerak aztertzeko eta hainbat arazo bere kabuz konpontzeko.</li> </ul>
<p>Teklatuaren bidez, eskolako jardueren testuinguruan, informazioa sartzea arintasuna eta zehaztasuna hobetzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzten:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zehaztasunez teklatuaren bidez eta minutuko 120 pultsazioko abiadurara iristen da, gutxienez.</li> </ul>
<p>Ergonomiako eta segurtasuneko oinarriko elementuak identifikatzea eta baloratzea, ordenagailua erabiltzerakoan ohitura osasuntsuak hartzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzten:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pantailekiko, esposizio denborekiko... posturak, distantziak eta posizioak zaintzen dituzten</li> </ul>
<p>Hainbat material interaktibo modu autonomoan erabiltzeko prestatzea, berariazko ikaskuntzak lortzeko eta ikasketa autonomoari duen balioa emateko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzten:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Web inguruneak eta multimedia euskarriko material interaktiboak erabiltzen dituzte, arlo</li> </ul>

	<p>bakoitzeko gai desberdinak lantzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Interneteko prestakuntza- eta informazio-iturri ugari ezagutzen eta erabiltzen ditu: liburutegiak, ikastaroak, prestakuntza-materialak, prentsa...</li> <li>• Materialekin eta inguruekin egoki lan egiten duenean</li> <li>• Ikasgelan ezarritako plan zehatzen arabera autoerregulatzen denean</li> </ul>
<p>Teleprestakuntzako inguruneetan mugitzea, ikastaroetan eta beste ekintza batzuetan parte hartzea ohitzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskura dituen tresnak behar bezala erabiltzen dituenean.</li> <li>• Ezagutzaren talde-erakuntzaren garrantzia aintzakotzat hartzen duenean eta prozesu horretan parte hartzen duenean.</li> <li>• Beste pertsona batzuen ekarpenak errespetatzen dituenean.</li> </ul>
<p>Teknologien eta horien aurrerapenen berezitasunak hautematea eta aztertzea, horien erabilerarekiko jarrera irekia, arduratsua eta kritikoa agertuz, norberak duen ikasteko gaitasunean erabili ahal izateko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kritikoki eta aktiboki onartzen ditu teknologia berriak, eta bere eguneroko lanak egiteko erabiltzen ditu.</li> <li>• Teknologiaren atzean dauden interesez eta baloreez ohartzen da eta, horrenbestez, teknologia horiek kontuz eta neurritz erabili behar direla ulertzen du.</li> <li>• Jabedun softwarearen eta banaketa askerako softwarearen arteko desberdintasunak ezagutzen ditu eta, horrenbestez badaki noiz erabili behar duen</li> </ul>



	<p>bata eta noiz bestea, erabilgarritasuna, prezioa eta gizarte-kontzientzia kontuan harturik.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Teknokiek duten adikzio-botereaz ohartzen da eta kontrolatu egiten du tresna horiekin igarotzen duen denbora.</li> </ul>
<p>Interneten batera egin beharreko lanaren aplikazioak erabiltzen jakitea, gizabanakoen eta taldeen presentzia birtual hazkorra kontuan izanda, sarearen presentzia bera modu egokian kudeatzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbait aplikazio ezagutzen, baloratzen eta erabiltzen ditu (agendak, blogak, web ingurunean, wikiak, bulegotikako tresnak, irudien kudeaketarako tresnak eta Interneteko audioa eta bideoa).</li> <li>• Partekatzeak aberastasun pertsonalerako eta talde-aberastasunerako duen garrantzia onartzen du.</li> <li>• Posta-kontuak behar bezala antolatzen eta kudeatzen ditu.</li> </ul>
<p><b>INFORMAZIOA</b></p>	
<p>Inguru hipertestualak eta ikus-entzunezko materialak jarrera kritikoarekin esploratzea eta analizatzea, IKTen hizkuntza propioak interpretatzeko eta ulertzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inguru hipertestualetan mugitzen denean, estekak, irudiak... egoki erabilia</li> <li>• Irudiak informazioaren transmisioan duen garrantzia baloratzen du (irudien irakurketa).</li> <li>• Genero bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen ditu (publizitatea, albistegiak, dokumentalak...); horietako bakoitzaren</li> </ul>

	<p>aukerak bereizten ditu interesen edo beharren arabera, eta hitzezko nahiz hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarrera kritikoa agertzen du ikus-entzunezko bitartekoetan agertzen diren mezuekiko, iturrien eta horien motibazioan garrantzia kontuan hartuz.</li> </ul>
<p>Hainbat helbururekin informazioa lortzea, aukeratzea, antolatzea eta gordetzea (testua, irudia, soinua, bideoa...), prozesu hauetan autonomia eta eraginkortasuna lortzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa tratatzeko jardueretan planifikatzen, lan egiten, berrikusten eta parte hartzen duenean.</li> <li>• Interneteko nabigatzaileek emandako aukerak menderatzen ditu, informazioa jasotzeko, biltzeko, berreskuratzeke edo sailkatzeko, baita gogokoak/markagailuak kudeatzeko ere.</li> <li>• Bilagailuen aukera aurreratuak erabiltzen ditu informazio murriztua edo informazio zehatza lortzeko.</li> <li>• Datu-basean informazioa begiratzen eta sartzen du.</li> <li>• Sarean informazioa antolatzen eta partekatzen duenean</li> <li>• Informazioaren jabetza intelektuala errespetatzen du, bai jabetun informazioaren kasuan, bai jabetun publikoko lizentzia duen informazioaren kasuan (esaterako, GNU eta copyleft).</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarrera kritikoa agertzen du informazioaren aurrean, baten eta bestearen kalitatea bereiziz.</li> </ul>
<p>Prozesu hauetan autonomia eta eraginkortasuna lortzeko, formatu desberdinetan dagoen informazioa elaboratzea, informazio hori berdinei, familiei edota beste estamendu batzuei komunikatzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lortu nahi den helburuarentzat egokienak diren programa informatikoak erabiltzen dituenean.</li> <li>• Testuaren, irudien, audioen eta bideoaren arteko oreka mantentzen du lanak aurkezterakoan.</li> <li>• Testuak osatu, editatu eta berrikusten ditu prozesadore baten bidez.</li> <li>• Testuak, irudiak, audioak eta bideoak sortzen eta aldatzen ditu.</li> <li>• Datu-baseen kudeatzaile baten oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu.</li> <li>• Kalkulu-orri baten oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu.</li> <li>• Grafikoak, testuak eta ikus-entzunezko baliabideak nahasten dituen dokumentuak sortzen ditu.</li> <li>• Estetikak komunikazioan duen garrantzia kontuan hartzen du.</li> <li>• Pertsonen eta erakundeen ohorea errespetatzen du, eremu pribatuetan sartu gabe eta benetako informazioa eskainiz.</li> <li>• Arduraz erabiltzen ditu IKTak pertsonen arteko komunikazioa errazteko bitarteko gisa.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikazio eraginkorra izan ote den edota aldaketak sartu behar ote diren baloratzen duenean.</li> </ul>
<b>KOMUNIKAZIOA</b>	
<p>Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, bitarteko horiek behar bezala eta modu eraginkorrean erabiltzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzten:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tresna egokia erabiltzen du, kasuan kasuko komunikazio-asmoaren arabera.</li> <li>• Komunikabide elektronikoak erabiltzen ditu mezuak jasotzeko eta bidaltzeko, baita helbide-liburuxkak antolatzeke eta artxiboak eransteko ere.</li> <li>• Mezuen eraginkortasunaren, hizkuntzaren zuzentasunaren eta erabilitako bitartekoaren bezeritasunaren arteko harremana kontuan hartzen duenean.</li> <li>• Sare bidezko komunikazioan kortesia eta zuzentasun arauak errespetatzen dituzten.</li> </ul>
<p>Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, komunikazio elektronikoan erabilera kritikoa eta segurua garatzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituzten:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontuan hartzen du komunikazio elektronikoaren kostuaren eta behararen arteko lotura.</li> <li>• Egoera zailetan segurtasunarekin erreakzionatzen duenean: erantsitako artxibo susmagarriak, ezusteko mezuak edo mezu ezezagunak baztertzen ditu eta</li> </ul>

	ezezagunei ez die informazio garrantzitsurik ematen.
<p>Proiektu "kolaboratzaileak" gauzatzerakoan, taldean lan egiteko erremintak erabiltzea, taldean ikastearen garrantzia deskubritzeko eta baloratzeko.</p>	<p>Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hainbat tresna eraginkortasunez erabiltzen ditu: posta elektronikoa, foroak, "lankidetzarako inguruneak", bideokonferentziak.</li> <li>• Emandako errolak onartzen eta betetzen ditu eta "lankidetzako proiektuetan" parte hartzen du.</li> <li>• Talde-lanerako tresnak beste ikasleekin, irakasleekin edo kulturekin harreman sendoagoak sortzeko bitarteko ezin hobetzat hartzen ditu.</li> </ul>